

# HUHEZIK Europako Comenius proiektuaren barruan antolatutako Topaketa

2006/11/23

HUHEZIK antolatuta, azaroaren 21ean hasi eta 24ra bitartean, 30 lagun elkartu dira Kresala hotelean, Deban, Comenius 2.1 proiektuan lan egiteko. Proiektu horren helburua da sortzea ikastaro eleaniztunak eskola integraletako zuzendari, curriculum planifikatzaile, kudeatzaile eta aholkularientzat, eta hor zentratuko dira gurasoen kontzientziazioan, herrialde bakoitzaren premietan, jarraikortasunean, irakaskuntza ereduetan eta gizarte mugikortasunean. Bileran parte hartuko dute hainbat herrialdeetako profesionalak:

- Powys Education Authority - Gales. Koordinatzaile nagusia proiektu honetan.
- HUHEZI, Mondragon Unibertsitatea - Euskadi. Gure ordezkariak bileran: Arantza Mongelos, Julia Barnes, Ane Urizar eta Iñaki Larrea.
- Karmoy Local Education Authority - Norvegia.
- Vilnius Pedagoginis Unibersitetas - Lituania.
- Gaelscoileanna - Irlanda.

Ostegunean, bilerakideek bi ikastetxe bisitatuko dituzte: Antzuolako Eskola Publikoa, lehen hezkuntzakoa eta Almen Ikastola Eskoriatzan, bigarren hezkuntzakoa.